

**HKEE-REN PRENTSA OHARRA, BERRIKUNTZA, IKERKETA, OSASUNA  
EUSKO FUNDAZIOAREN, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN  
SEGURTASUNERAKO EUSKAL FUNDAZIOAREN ETA EUSKADI KIROLA  
FUNDAZIOAREN 2015-EKO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Joan den abenduaren 22an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen Berrikuntza, Ikerketa, Osasuna Eusko Fundazioaren, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioaren eta Euskadi Kirola Fundazioaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren 2015eko Fiskalizazio Txostena. Fundazio hauek EAEren Sektore Publikoaren atal dira.

Txostenak ondorioztatu du hiru fundazioek zuzentasunez bete dutela 2015eko ekitaldian ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia eta ez-betetze bakar bat azaleratu dela Euskadi Kirola Fundazioak kontratu batean baliatutako kontratazio prozedurari dagokionez.

2015eko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk aldeko iritzia plazaratu du hiru fundazioetan.